

PATXI ZUBIZARRETA



N
A
R
R
A
Z
I
O
A

jeans-ak
hozkailean



ALBERDANIA



PATXI ZUBIZARRETA



N
A
R
R
A
Z
I
O
A

jeans-ak
hozkailean



ALBERDANIA



PATXI ZUBIZARRETA

JEANS-AK HOZKAILUAN

NARRAZIOA

ALBERDANIA

*Bitartean ibillico dira becatutic becatuta amilduaz; oraiñ pensamentu batean, guero seago itz loyak gozotoro
aditzean: oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero
dantzan, edo dantza ondoan alberdanian.*

(J.B. AGIRRE)

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza
izan du liburu honek.*

Azala: Antton Olariaga

© Patxi Zubizarreta Dorronsoro, 2000

© Argitaraldi honena: ALBERDANIA, S.L., 2000

Istillaga, 2, behe C, 20304-Irun

Tf.: +34 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

ISBN digitala: 978-84-9868-583-1

ISBN papera: 978-84-95589-09-5

Legezko Gordailua: S.S. 1263/2000

JEANS-AK HOZKAILUAN

LEHEN KOADERNOA

LAGUNARTEA

*Juanek maite zuen Teresa, zeinak maite zuen Raimundo,
zeinak maite zuen Maria, zeinak maite zuen Joakin, zeinak maite zuen Lili,
zeinak ez zuen inor maite.*

*Juan Estatu Batuetara joan zen, Teresa komentura,
Raimundo istripu batean hil zen, Maria izeba izateko geratu zen,
Joakinek bere buruaz beste egin zuen eta, Lili, J. Pinto Fernandezekin esposatu
zen,
zeina historia honetan sartu gabea baitzen.*

Carlos Drummond de Andrade
Mundo, vasto mundo

1. Zulo batetik begiraturik, Mary Landfordek katu bat zikoina batekin jostatzen ikusten du.

Zuloa

~~Nork esan behar zidan~~

~~Gutxien espero nuenean, Dabidek, nola esango nuke~~

Orain dela hiru bat urte, egun batez Dabidi etxeko atea zabaldu, eta fardel batekin zetorrela ohartu nintzen. “Hara, eskultura bat ekarri dizut”, esan zidan. Hasieran ez nintzen gehiegi harritu: lanean bazuen lagun eskulturgile bat, etxean non ipini geratzen ez zitzaionean, noizean behin bere obrak oparitzen zizkiona. Baina fardeleko papera kentzean, ohi ez bezalako eskultura bat topatu nuen, aurrekoetatik oso desberdina zena.

Nire haur denboran, eskolan, eskulanetarako buztinezko puska karratu batzuk erosten zizkiguten, material harekin gero geure gustuko irudiak sortzeko. Eta, egia esatera, Dabidek egun hartan ekarri zuen eskulturak, artelana baino gehiago, buztin puska karratu haietako bat zirudien. Hala ere, bereizgarri bat zuen: erdi-erdian, esku bildu baten tamainako zulo biribil bat zabaltzen zitzaion. Eta zuloak, alde batetik begiraturik, zirkulu perfektua osatzen zuen, nola esango nuke, laranja batenaren antzekoa; baina beste alderditik buztina kanporantza zabaltzen zen, zati ttikitan, zerbaitek buztin puska zeharkatu, eta, irtetea, materiala kanpo aldera lehertu izan balu bezala.

“Gustatzen al zaizu?”, galdegin zidan Dabidek. Baina nik zer esan jakin ez, eta sorbaldak jasoz erantzun nion. “Eskultorea Smith & Wesson Stainless Steel M67 bat da, 38 kalibrekoa”, jarraitu zuen. Orduan nik, bekokia ilunduz, ezin izan nuen nire harridura ezkutatu. “Ziria sartu dizut: tiro froga bat besterik ez da. Beharrean, sarritan egiten ditugu horrelako ariketak. Bala batek giza gorputzean zelako txikizioa eragin dezakeen ikusteko, ez dago hori baino froga hoberik. Orain badakigu marka horretako pistola batek, sei bat metrotik tiro egingez gero, hori bezalako zulo bat sortuko lukeela zure gorputzean (ongi oroitzen naiz “zure” hitza erabili zuela, edo “lizukeela” bestela). Eta harrigarriena zera da: badirudi bala sartzen den aldean zuloa garbia izan behar

dela, eta irteeran balak buztina kanporantza zabaldu behar duela. Baina muturrean dituen estrien eraginez, kontrakoa gertatzen da: balaren kontaktuarekin, buztina —edo haragia— sarrerakoan lehertzen da, irteera garbi baino garbiago utziz”.

Dabidek hala ~~proposaturik~~ nahi izan zuelako, egongelan egokitu genuen eskultura zulodun hura eta, bistan dena, etxera etorritako lagunei, eskultore ospetsu baten obra zela esaten tematu zen, pasadizo batek, bigarren aldiz kontatzean, barregarritasun guztia galtzen duela ez baleki bezala. Denek besterik gabe sinetsi zuten, baina artean gure lagunak ziren Mirenek eta Koldok, biak ere institutuko irakasleak, iritzi hau gaineratu zuten: “Zulo horrek, hutsune zirkular horrek sekulako indarra ematen dio eskulturari”. Dabidek eta biok —barreari ezin eutsiz, ezin ukatuko dut— baiezko imintzioak egin genituen, eta artean gure lagunak zirenak joan bezain laster, irriz karkailaka lehertu ginen. “Azkenean arte galeria bat zabaldu beharko dugu”, amaitu zuen Dabidek.

Alabaina, nola esango nuke, handik gutxira Dabidek egia ~~oso esan~~ aitortu behar izan zidanean, egiaz tiro egin zidanean alegia, zuloa neuri sortu zidan eta, zabaldu zitzaidan hutsuneari erreparaturik, pistola batena baino gehiago kanoi batena zirudien. Egia esatera, nik ere halakoxe zuloa eragingo nion eskultura hura ezustean hartu, eta jaurti nionean, baina ez nuen jo, eta zulo bakarra neuri zabaldu zitzaidan, handi eta biribil, eta halako hustasuna uzten duen zulo bat, halako neurria duen zulo bat nekez itxi daiteke, nekez...

Egunerokoa

Ez nuen uste etxetik alde egiteko gai izango nintzenik, are gutxiago bakar-bakarririk eta orduko 951 kilometroko abiadan; ez nuen uste berriro eguneroko bat zirriborratzeko beharrizana sentituko nuenik; ez nuen uste adoleszentzian ikasitako poema hau oraindik ere hitzez hitz oroituko nuenik.

*Izena dut Mary Landford
ene eskuak ttikiak dira
ene oinak ttikiak dira
ene ilea beltza da
ene bularrak ttikiak dira
ez naiz oso altua*

*deskribatu naiz
hogeita zortzi segundotan.*

Adoleszentzian, poema horixe kopiatzen nuen estreinatzen nuen eguneroko bakoitzean. Halakoetan, lehenengo lerroa besterik ez nion aldatzen: izena dut Rakel, Rakel Ameskoa, izan ere deskribapen hark ispilu batek baino hobeki islatzen baininduen orduan eta islatzen bainau oraindik ere. Baina gaur lehenengo lerroa ez ezik, bosgarrena ere aldatuko nioke: ene bularrak tititzarrak dira, izan ere, hilekoa jaitsi behar zaidan guztietan bezala, bular handitu hauek lehertzeko zorian baititut. Eta gaur, nork esan behar zidan, aspaldiko partez oroitu eta idatzi dut gogoko poema hori, Bruselako aireportuan erosi dudakoadernoan.

Bozgorailuetatik New Yorkerako hegaldia hiru ordu eta erdiz atzeratu dela jakinarazi dutenean, kioskora jo dut aldizkari baten bila. Izenburuak ikusmiratzen ari nintzela, begiak honako honetara joan zaizkit: “Infidelitatea: bikotearen sukarra”. Eta ~~hartu, ez hartu egon banaiz ere~~, batere zalantzarik gabe erosi egin dut nire ~~arrangura~~ obsesioa doi bat arinduko zelakoan, erantzun lagungarriren bat topatuko nuelakoan.

Aldizkariak itxaronaldia eramangarriago egiten lagundu dit, baina hain zuzen ere infidelitatearen artikulua izan da, entretenitu baino gehiago, egonezina handitu didana. Guztiarekin, aldizkariarengatik ez balitz, orain ez nintzen lerro hauek idazten arituko, zeren, artikuluan aipatzen den *oinaze afektiboa* arintzearen (bai adierazpide hutsala nik sentitzen dudana azaltzeko), biziki nabarmentzen baita eguneroko bat idaztearen balio terapeutikoa (horra beste adierazpide arranditsu bat). Eta horrexegatik itzuli naiz kioskora. Han koaderno ezin politagoak ikusi ditut, eta nire barrena askatzeko (zerikusirik ez bulegoko akta, agiri eta faktuarekin) eta nire zuloa nola edo hala ixten laguntzeko, azal turkesa duen hauxe hautatu dut, politegia aukeran bertan idatziko ditudanak kontuan hartuz.

Alabaina, aspaldian neure buruaz hainbeste idazten ez nuenez, orain bezala tarteka nekatu, eta begirada jaso behar izaten dut. Eta aurrena, hegazkineko leihatilaz bestaldeko ilunabar amaigabeari erreparatu diot, eta hurrena parez pare dudak telebistari. Pantailak eskaintzen duen informazioaren arabera, oraingo gure abiada orduko 960 kilometrora igo da, 10.100 metrotan gaude eta tenperatura zeropetik 44 gradukoa da. Eta datu horiek, buruko ileetatik behatzetako atzazaletaraino zeharkatu nauen hotzikara bat sortzearekin batera,

gehiago areagotu dute nire barne hustasuna: ez, ez nuen uste etxetik bakar-bakarrik alde egiteko gai izango nintzenik.

Bakardadea

Gure amona zena, bazkalondoan sukaldea jaso, eta mahaira esertzen zen. Ukondoak bertan tinkatu, burua eskuineko eskuan pausatu, eta aurrena “Polikarpo!” hots egiten zuen, eta hurrena “Mix, mix, mix” xuxurlatu. Eta katua haize bolada leun baten antzera etortzen zitzaion, arin eta isil, eta amonaren lepo bueltan etzaten zen. Eta katuak bere gorputzaren berotasuna eskaintzen zien amonaren hezur gogortuei. Eta katuaren sabelak, haizeak airatzen duen orbelaren marmarra bezalakoxea sentiarazten zion, gozo eta loeragile. Eta amona orduantxe geratzen zen lo, eta Polikarpo etorri ezean ez zuen kuluxkarik egingo.

Esan gabe doa Polikarpo noiz edo noiz desagertu egiten zela, baina halakoetan amonak haren ondorengo katu nabar bat hartzen zuen, izen bera ezartzen zion eta neke askorik gabe erakusten zion bere usadio bitxia. Behin batez, ordea, katua hil, eta amonak ezin izan zuen haren ordezkorik aurkitu. Ez auzunean ez harago, ez zen Polikarporen ondorengorik geratzen; guztiak hilak edo batek-daki-nora alde eginak ziren. Bakarrik bizi zen amonari guk uste baino ezinbestekoagoa zitzaion katuaren laguntasuna, zeren harrezkero lo kuluxkak egiteari utzi, eta, laster, gutxien espero genuenean, betiko loak hartu baitzuen.

Eta amonari Polikarpo bezala, niri ere ezinbestekoak zitzaizkidan Dabiden presentzia eta berotasuna; nik uste baino beharrezkoagoak haren esku-oinen epeltasun babesgarria neguko gau hotzetan —eta udako beroetan—, haren eskuen gertutasun epela bizitzan zerbaitek estutzen ninduenean edo, besterik gabe, haren gorputzaren berotasun hezea desio ninduenean... (zein gogorra zaidan horretaz guztiaz lehen aldian idaztea).

Oin eta esku izoztuak berotuko dizkizun inor ez izatea; ipurmasail hotzak esku beroaz lastanduko dizkizun inor ez izatea; bizkarrean azkura izan, eta hatz egingo dizun inor ez izatea; “Polikarpo!” (~~edo “Dabid!”~~) hots egin, eta ondora inor ez etortzea; horra bakardadea zer den.

Distantzia

Ettxeko giro itogarritik irten nintzen arratsalde batean, katedral berriaren inguruan zenbait jende gora begira topatu nuen. Nik ere begirada altxatu eta, gurutzean zein pinakuluetan pausaturik

—horrela esaten baldin bazaie—, hamar bat zikoina bistatu nituen. Gamarran, hiriaren kanpoaldean dagoen herrikkako habia ezagutzen nuen, elizdorrea errepidetik bertatik ikusten baita, baina hiri-hirian sekula ez nuen halakorik ikusi. “Gainerako hegaztiak baino lehenago elkartzen dira Afrikan negua igarotzera joateko”, entzun nion ikusle harrituetako bati. Eta uda hasiberri hartan nik negu minaren hotza nabaritu nuen neure baitan, eta bakardadearen hotzikara.

Dabidena gertatu zenetik, etxezulo izateari utzi, eta, norako argirik gabe, hirian barrena ibiltzeko usadioa hartu nuen. Orduak eta orduak eman nitzakeen hara eta hona; bazirudien berriro garatu zitzaidala bakarrik ibiltzeko gaitasuna, ordurako hain kamustua nuena. Hala gauzak, Teresarekin kasik egunero geratzen nintzen eta, bestela, nahiz eta ezeri erreparatzeko guztiz gogogabetua sentitu, arropa dendetara sartzen nintzen; zinemara, edo hiriko parkeetara ere joko nuen, batez ere etxera itzultzeko unea ahalik eta gehien atzeratu nahi nuelako, Dabiden presentzia hutsak uxatu egiten ninduelako. Baina zikoinak ikusi nituen arratsalde hartan, bihozkada bat izan banu bezala, topatu nuen lehenengo bidaia agentzian sartu nintzen. Eta doi bat gaizkiturik sartu banintzen ere, irten, indarberriturik irten nintzen, ustekabean bidaia baterako izena eman eta gero: “Estatu Batuak: kostatik kostara”.

Ettxetik ahalik eta urrunen joan nahian nenbilen (Bruselan erosi dudana aldizkarian distantzia hartzea ere aholkatzen da, egunerokotasunetik urruntzearen komenentzia), baina zikoinak ikusi arte ez nuen erabakia hartzeko bezainbat kemen izan. Eta zikoinen antzera Afrikara joan nintekeen modu bertsuan, bidaia agentziako emakumeak Ipar Ameriketara joateko aukera goraipatu, eta nik onartu egin nuen batere pentsatu gabe.

Neure buruarekin aski harriturik itzuli nintzen etxera, baina Dabid are gehiago harritu zitzaidan nire asmoen berri eman nionean. “Bakarrik?”, besterik ez zitzaion atera orduan ere. “Bakarrik”, erantzun nion tinko, “denbora gehiago eta distantzia behar ditut gure artekoa argi ikusiko badut. Agian zuri ere on egingo lizuke...”.

Une hartan, azken bi hilabeteotan gure artean hain ugariak izan ziren isilune desatsegin haietako bat sortu zitzaigun. “Gelara noa”, esan nion, eta bera hiri erdian autoak anbulantziari toki egiteko baztertzen diren gisara erretiratu zen,

niri pasatzen uzteko. Eta anbulantzia igaro, eta atzean uzten duen urduritasun isil eta kezagarria geratu zen etxean. Gaixo larria, noski, gure arteko harremana zen (aldizkarian aipatzen den oinaze afektiboa edo sukarra baino zer edo zer larriagoa inondik ere), eta da.....

Ez dut ukatuko ezusteko erabaki horren atzetik nire ausardia nabarmendu nahi nuela Dabiden aurrean eta, ez dut ukatuko, halaber, hain bat-bateko erabakia hartu izanak urduritasuna sortarazten zidala. Baina argi neukan bera jokoz kanpo harrapatu nahi nuela. Bai, elkarrekin ezer adostu aurretik, neure erabakiak hartzeko, neure asmoak gauzatzeko gai nintzela erakutsi nahi nion. Eta ez dut ukatuko, azkenik, irrikaz nengoela Dabiden barrena nola zegoen jakiteko; besterik gabe, udarako zein asmo zuen jakin nahi nuen, horrekin gauza asko argituko baitzen; baina nahitara ezer galdegin ez (batetik, ahalik eta axolagabeen agertu nahi nuen beraren aurrean; eta, bestetik, amorante hitza aipatzeko aukerarik ttikienak kirioak airean jartzen zizkidan), eta gelara jo nuen: bakarrik egotera, bakarrik lo egiten saiatzera, bakardadeari —eta loezari, eta hotzari— aurre egitera.

Geroxeago, Dabid ere lotara joan zen, baina azken bi hilabeteetan bezala, gonbidatuentzako gelara (inork ezer aipatu ez bazuen ere, Dabidek berez hartu zuen han lo egiteko erabakia, errudunak egunerokotasunaren onura eta abantailetarako eskubidea galdua balu bezala). Baina erretiratu aurretik, komunitetik bueltan, ~~gure~~ nire gelaren kanpoaldetik igarotzean, Dabidek agur gisa hatz koskoez jo zuen nik itxia izaten nuen atea, errukarri antzean jo ere, eta orduan negu gorriko izotza sentitu nuen berriro, bai orduan bai beraren “Gabon” xuxurla hura entzutean. Eta ipurmasailak edo oin hotzak berotuko zizkidan inor ez alboan.

Nire haur denboran, neure buruarengandik eta gurasoengandik ihesi, gau batez oso urrunera ez, eta auzuneko parkeraino joan nintzen ihesi; han bizpahiru orduz egon nintzen harik eta amak, nahigabeturik, txorikume busti baten antzera aurkitu ninduen arte. Gaztetan, neure burua topatu nahian, familiarengandik alde egin, eta Dabidekin jarri nintzen bizitzen. Eta orain, azkenik, neure buruarekin, familiarekin eta Dabidekin aski adiskideturik nengoela, gutxien uste nuenean, New Yorkerantza noa denengandik ihesi.

Berriro ere idazteaz nekatua, begirada leihatilara jaso, eta ohartu naiz laranja, urdina eta morearen ñabardura guztiak dituen ilunabarra ez dela amaitzen, hegazkina —eta ni neu— gauaren ihesi joango balitz bezala, oraingoan orduko 963 kilometroko abiadan...

Kaixo, Dabid eta Rakel gara. Orain ez gaude etxean; baina, zure izena eta telefono zenbakia utziz gero, geuk deituko dizugu. Mila esker.

2. Mikrouhin labe baten barnean autobus bat ikusten da, eta haren gainaldean, bakarrik, Mary Landford.

Errealitatea

Atzo, azkenean amaitu egin zen ustez amaigabea zirudien ilunabarra (~~Dabid eta nire arteko amodioa bezala?~~), eta gauak azkenean harrapatu egin zuen beragandik ihesi zihoan hegazkina —eta baita ni neu ere—. Eta New Yorkera gauetz heldu ginen, beraz, hamar bat orduren buruan, eta muga igarotakoan hantxe ezagutu genuen, eskuetan erakusten zuen txartelari esker (EEBB: kostatik kostara), bidaia honetan gure gidaria izango dena: Dan. Bera ez ezik, furgoneta berean New Yorketik San Frantziskora joatekoak garen gainerako bidailagunok ere hantxe ezagutu genuen elkar (falta den hamahirugarrena Bostoneraino ez omen zaigu elkartuko) eta, kasualitatez, hegazkinean nire alboan etorri zen mutil adeitsu eta, nola esango nuke, erakargarria, Karmelo, bidaia hau bera egitekoa da. Eta, ez dut ukatuko, pozten naiz.

Ordu ttikiak zirenez eta oso nekatuta geundenez, aurkezpenak gaur goizerako utzi, fardelak denon artean ekipaje tokira igo, eta furgonetara sartu ginen. Ni atzealdean eseri nintzen eta handik erraz erreparatu ahal izan nion jendearen ikusminari: irrikatan zeuden hiriko etxeorratzak eta iragarki neonargitsuak ikusteko. Ni, ordea, leher kaka egina sentitzeaz gain, azken boladan bezain axolagabe nindoan, baina ez denbora luzerako. Kanpo aldera begiratu nuen batean, zer eta tigre bat ikustea iruditu zitzaidan..... Hotzikara batek buruko ileetatik oinetako behatz ttikiraino zeharkatu ninduen, baina, alde batera, neure burua taldean nabarmendu nahi ez nuelako (zer edo zer argi baldin badut, horixe da: bidaia honetan oharkabean igarotzea) eta, bestera, sinesgaitza gerta zitekeelako (piztia agudo desagertu zen kantoi ilun batean), isilik jarraitzea erabaki nuen, isilik bezain arranguratua: ez zen bada hura eromenaren aztarnaren bat izango? Guztiarekin, hain bidaia luzea egin ondoren, barnean hain zulo sakona, hain hustasun handia sentitzen nuela, nire nahasmenarekin ez zen harritzekoa izango katu handi bat izatea nik tigretzat hartu nuena. Gainera, hirietako estolderietan dioten bezalako arratoitzarrak

baldin badaude, oso litekeena zen katuak ere halakoxeak izatea. ~~Hala ere, nik esango nuke...~~

Tigrea edo katua izan, gaur goizeko bileran bidailagun batek —Jordi izena duelakoan nago— katuei buruzko pasadizo bat ekarri du hizpidera, eta zinez harrigarria egin zait: ez oso aspaldi, New Yorkeko amona batek bere katua garbitu eta, hura lehortzearren, mikrouhin labean sartzea bururatu zitzaion, bururatu eta egin; noski, katua kiskali egin zen, eta hain zuzen ere kiskali zelako, amonak enpresa labegilea salatu, eta epaitegietara eraman zuen, izan ere inork ez baitzion ohartarazi arriskutsua izan zitekeela animaliak labean lehortzea. Salaketa azterturik, epaileak amonari eman zion arrazoia eta enpresa hainbat milioi ordaintzera behartu zuen, dirua ordaintzera eta labeetan honelako ohar hau ipintzera: “Kontuz: oso arriskutsua da hemen animaliak bizirik sartzea”.

Alabaina, ni ez naiz beste errealitate batean sentitzen tigre bat ikusi uste dudalako, edo mikrouhin labekoa bezalako pasadizoez hemengo normaltasunaz zalantza sortarazten didatelako, edo New York zinez *gigantoso*a —Dan gidariaren hitzetan— delako. Ez: ni beste errealitate batean sentitzen naiz, hain zuzen ere, Dabidek egiaz tiro egin zidanetik, eta horrek ingura nazakeen paisajerik liluragarrienak baino gehiago eragiten nau. Nola esango nuke, Dabidek egia azaldu zidanetik harritua, noragabetua, jausia nago. Hala sentitzen nintzen Gasteizen, halaxe sentitzen naiz New Yorken, eta halaxe sentituko nintzen noranahi joanda ere...

Erridikulua

Gaur goizean egin dugun bilera laburraren ondotik (nik uste eman zaizkigun ohar eta aholkuei baino arreta handiagoa eskaini diogula bidailagunak aztertzeari), Danek txango bat egitea proposatu digu bi pisuko autobus batean. “Hiriaren lehen inpresioa hartzeko, *bildinak* ikusteko, autobusaren goiko pisua bezalakorik ez dago. Ibilbide benetan *monumentoso*a da”. Eta beharbada arrazoia izango zuen, baina nik neure burua ezin barregarriago ikusi dut autobusaren bigarren pisu sabaigabeen, eguzki galdatan gindoazela (agentziaren furgoneta askoz diskreto eta, batez ere, freskoagoa izan zitekeelakoan nago).

Gainera, txangoan zehar areagotuz joan da berezko erredikulu sentsazioa: gidari kalakari bat, mikrofonoa eskuan, denbora guztian isildu ere ez da egin (eta halako ingeles amerikarra, halako abiadarekin, nork ulertu ezer hari); eta

hark atzamarra nora zuzendu, denok batera burua hara jiratz ibili gara; bestalde, autobusean zihoazen gehienek turista uniformeak jantzia zuten (fraka motzak eta haien bidaiak oroitarazten zituzten elastikoak: Egiptoko piramideak, Pariseko Eiffel Dorrea, Euskal Herriko “Nafarroa Oinez” ikurriña eta guzti...); eta hori gutxi balitz, etengabe ibili dira argazkiak atera eta atera. “Ez al duzu kamerarik ekarri?”, galdegin dit harriturik taldeko batek baino gehiagok; “orduan, aterako al diguzu argazki bat?”. Eta kamerarik ekarri ez dudana arren, beharbada beste inork baino argazki gehiago atera behar izan ~~dut~~ diet.

Autobusean neure burua hain barregarri ikusirik, konturatu gabe gogoa Gasteizera joan zait, seguruenik hantxe eta, hain zuzen ere, autobus batean, sentitu nuelako nire bizitzako erridikulurik handiena. Bulegotik irten, eta euria goian-behean ari zuen egun batean gertatu zitzaidan. Euritakorik eduki ez, eta, etxera oinez joan beharrean, autobusez hurbiltzea erabaki nuen. Autobus geltokian bertan, diru xeherik gabe nengoela ohartu nintzen, baina bost mila pezetako bat banuen, bai, eta lasai geratu nintzen billetea sakelari eskuztatuz. Alabaina, guztiz lasai ere ez nintzen egongo, zeren nahitara azkena sartu bainintzen, ilaran inolako enbarazurik ez sortzearen. Eta sartu naiz, baina txoferrak nire billeteari erreparatu, eta ezikusia egin dit, ni haren aurrean ez banengo bezala.

—Sentitzen dut, baina ez dut billete ttikiagorik. Euria... —ekinez desenkusatu natzaio, apal, autobuseko bidaiarien begiak, txoferrarenak salbu, niregan tinkaturik sumatzen ditudala.

—Ez duzu pentsatuko billete horrekin ordaintzea, ezta? —aurpegiatu dit halako batean ~~potrozorri halakoak~~ artean aurpegira begiratu gabe.

Une hartan zer egin ez nekiela geratu nintzen, auto batek errepideko putzu baten gainetik igaro, eta frakak blaitzen dizkizunean baino ~~haserretuago~~ ezdeusago. Are okerrago autobuseko hartan nire ttikitasunaren, nire desanparoaren lekukoak ~~asko~~ gehiegi zirelako; eta haien begietan irribarre makurren bat, haserre keinuren bat sumatu nuelako sortzen ari nintzen atzerapena zela eta. Orduan ez zitzaidan bururatu, baina gerora pentsatu izan dut bidaiariren batek txanpon batzuk uzten ahal zizkidala, baina ez. Orduan ez nuen pentsatzeko adorerik ez astirik izan eta, txoferrak mesprezuzko imintzioak egiten zituela ikusirik, nola edo hala “Noizbait jaitsiko al zara?” adieraziz, autobusetik alde egin beste irtenbiderik ez nuen izan: burumakur, hutsaren hurrengo, ezin umiliatuago... Eta halaxe itzuli nintzen etxera, halaxe eta